

Ekonomia berde eta jasangarrira 2021ean bideratutako **maileguak % 31** hazi dira

Kutxabankek 2.753 milioi euro aktibatu ditu finantzazio jasangarrian, % 60 gehiago

- **1.095 milioi euro onartu ditu 'Hipoteka Berdeetan', eta beste 1.157 milioi energia berriztagarriak eta trantsizio ekologikoa sustatzen dituzten enpresak babesteko**
- **500 milioi euro jaulki ditu bono berdeetan, ingurugiroan eragin positiboa duten egitasmoetara likidezia bideratzeko**
- **550 milioi euroekin korporazio handien finantzazioan parte-hartzen du, ESG irizpideak dituzten mailegu sindikatuen bidez**

2022ko urtarrilaren 31an. 2021. urtean, Kutxabankek **2.753 milioi** euro mugiarazi ditu guztira gizarte eta **ingurugiroaren ikuspegitik eragin positiboak** dituzten jardueri baliabide-ekonomikoak emateko, energia berriztagarrien aldeko eta karbonoaren murrizketaren aldeko apustua egin duten hainbat proiektu babesteko, finantza jasangarrien garapena sustatzen duen bitartean. Aurreko urtean aktibatutako finantzazio jasangarriarekin alderatuta, **% 60** hazi da, beraz.

Finantzazioaren zati handi bat **norbanakoek erosi dituzten etxebizitza** eraginkorretara bideratu da, **'Hipoteka Berdea'** izenekoaren bitartez. Gaur egun Taldeak sinatu ohi dituen hipoteka guztien laurden bat, dagoeneko, jasangarriak dira.

2021ean **6.000 eragiketa** baino gehiago sinatu ziren esparru honetan, **1.095 milioi** euroko balioarekin, aurreko urtean baino **% 38** gehiago.

Xehekako Bankaren alorrean bertan, Taldeak **% 81** igo du segmentu 'berdean' eman diren **kontsumorako maileguen bolumena**. Finantzazio hori eraginkortasun-energetikoa hobetu nahi zuten etxebizitzetara bideratu da, isolamendu eta klimatizazio-sistemak hobetzeko. Halaber, finantzaziorako erraztasunak eman dira auto **elektrikoak, hibridoak eta erregai alternatiboak** erabiltzen dituzten ibilgailuak erosteko.

Gainera, etxebizitza partikularretan **eguzki-plakak** jarri ahal izateko lankidetzak-ekimenak sinatu ditu Kutxabankek, energia fotovoltaikoaren autokontsumoa erraztu ahal izateko.

Ekonomia berde eta jasangarriari, pertsoneri eta enpresen bitartez emandako maileguak **% 31** hazi dira aurreko urtearekin alderatuta.

Enpresak eta erakundeak

Gizarte eta ingurugiro-garapena sustatzeko ekimenak abiarazi dituzten enpresei eta erakundeei ere babes-finantzarioa ematen jarraitu du Kutxabankek, lekuan lekuko ekonomien mesedetan.

Enpresen eta erakundeen alorretan espezializatutako lan-taldeek **1.157 milioi** euroko balioa duten eragiketak onartu dituzte, **% 25** gehiago, guztiak **ekonomia berde eta jasangarrian** inbertsioak egin ahal izateko. Oro har, energia berriztagarriak sortzeko edo bateratzeko egitasmoak, mugikortasun jasangarria bultzatzen dutenak, edota babespeko etxebizitza eraginkorrakoak sustatu dituztenak bideratu ditu Bankuak.

Kutxabankek onartu dituen proiektuan artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, **energia berriztagarriaren ahalmena hobetzeari** lotutakoak, **ziklo hidrikoak** osorik egokitu edo hobetzeko ekimenak, **biomasa zentralak** mantentzekoak, edota **nekazaritza eta abeltzantza jasangarria** bultzatu dutenak.

Horrez gain, itsas ontziei erregaia eraman edota isuritako erregaia jasoko duen **ontzi-hibridoaren** eraikuntzari eman zaion mailegua zuzendu du Kutxabankek. Ontzia Muruetako ontzian ari dira sortzen. Finantzazio-kontratuak itxi ditu diesela erabili ordez gas likidotuarekin mugitzen diren **ibilgailu flota osoak** berritzeko, **hondakinak jaso eta bereizteko** edota **basogintza babesteko** zerbitzuak sortzeko.

Mailegu sindikatuak

Korporazio handiei eman zaizkien mailegu sindikatuko hainbat ekimenetan parte hartu du Kutxabankek, guztira **550 milioi** euro bere gain hartuta. Eragiketa hauetan, interes tipoa ez da rating baten arabera finkatzen soilik, aitzitik ESG ikuspegitik hainbat irizpide bete behar izaten baita.

Honela, **Grupo Acciona** bezalako konpainia handien egitura finantzarioa sendotzeko eragiketan parte hartu du 3.300 milioi euroko sindikatutako ESG finantzazio jasangarriarekin, **Acciona Energia** burtsara irtetzeko finantzazioan izan da, bai eta **Endesan** 550 milioi euroko ESG Finantzaketa Jasangarrien eragiketa batean parte hartuz, edota **AENAr** emandako 800 milioi euroko (ESG- Linked RCF) ildo sindikatuan ere.

Gainera, urrian arrakasta izan zuen **500 milioi** euroko balioarekin egin zuen lehentasunik gabeko senior zor berdearen lehen jaulkipenak. Jaulkipenaren helburu estrategikoa **ingurugiroan eragin positiboa** duten aktibo eta egitasmoetara likidezia bideratzea da,

karbono isuri txikiagoak dituen ekonomia babesteko, eta finantza-jasangarrien bilakaera bideratu eta sustatzeko. Energiaren ikuspegitik eraginkorrek diren eraikuntzak eta energia berriztagarriak dira inbertsioa jasoko duten proiektuetako batzuk.